

gkz berdea

13. zk. 2017ko urtarrila

Beste urte batez, itxi berri dugun urtearen balantzea egingo dugu urtarrileko aldizkari honetan.

FAKULTATEKO KONTSUMOAREN DATUAK

Hiruhilekoko datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

URRIA	AZAROA	ABENDUA
34.000 unitate	29.000 unitate	25.000 unitate

Esan daiteke urteko azken hiruhileko honetan kontsumitu dela paper gutxien Fakultatean: guztira, 88.000 unitate.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2016ko LAUGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	8

Urteko azken hiruhilekoan, berriz manufacturatutako 8 kartutxo aldatu dira.

BIRZIKLATZEKO EDUKIONTZIETARA BOTATAKO HONDAKINAK (Fakultatea)

	URRIA	AZAROA	ABENDUA
Ontziak*	99 kg	86 kg	57,5 kg
Papera**	790 kg	570 kg	290 kg

*Kg = kilogramoak (litro 1 paper = 0.32 kg eta litro 1 plastiko 0,05 kg)


**Beotibar Recycling SL enpresak emandako datuak

Edukiontzi horietara ontzi gutxiago bota dira, eta edukiontzi urdinetara ere paper gutxiago bota da. Abenduan lan gutxiago egon ohi da, eta hori garbi ikusten da sortutako hondakin kopuruan.

URTEOTAKO DATUEN KONPARAZIOA

Azken lau urteotako kontsumo datuak:

	2013	2014	2015	2016
Erabilitako papera	325.000 unit.	300.000 unit.	317.500 unit.	337.500 unit.
Berriz manufakturatutako kartutxoak	24 unitate	69 unitate	40 unitate	32 unitate
Paper bilketa (edukiontzi urdinak)	daturik ez	daturik ez	8.560 kg.	7.740 kg.
Ontzien bilketa	430 kg	873,5 kg	808,5 kg	723 kg
Beira	daturik ez	daturik ez	39,1 kg	46,9 kg



Nahiz eta goiko taulan ikusten den aurreko ekitaldian baino orri gehiago erosi direla (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza), grafikoak erakusten du benetako kontsumo kuantifikatua txikiagoa izan dela. 2015. urtean 317.500 unitate erosi ziren, eta 2016an, berriz, 337.500. Kontsumoari dagokionez (hil hasieran stockean dagoen kaxa kopurua eta hil amaieran gelditzen dena zenbatzen da), grafikoan ikus daiteke ia hil guztietan kontsumitu dela 2015ean baino gutxiago. Otsailean, apirilean eta abenduan besterik ez da areagotu kontsumoa. Urteko neurketaren arabera, 19.000 unitate gutxiago kontsumitu dira: 357.500 2015ean, eta 338.500 2016an. Dena dela, kontsumo datu onenak 2014koak izan ziren: 326.000 unitate erabili ziren denera (eta 300.000 ale erosi ziren). Datuok erakusten dute aurrerantzean ere zentzuz erabili behar dugula papera; izan ere, ikus daitekeenez, oraindik ere posible da kontsumoa murriztea.

Bestalde, berriz manufakturatutako kartutxoak erabilerak behera egin du, 40 unitatetik 32ra. Halako kartutxoek ingurumen inpaktu txikiagoa dute kartutxo konbentzionalek baino.

Ontzien gaikako bilketa urritu egin da bigarren urtez jarraian. Hileko batez bestekoa 1.205 kilo izan da.

Edukiontzi urdinetan, guztira, 7.740 kilo batu dira, aurreko urtean baino 825 kilo gutxiago.

Duela bi urte beira biltzeko guneak jarri zirenetik eta aurreko urteko datuekin alderatuta, 2016an 7 kilo beira gehiago jaso dira.

Paperik gabeko IV. eguna



Paperik Gabeko Eguna

lazko abenduaren 16an, Paperik Gabeko Eguna antolatu zen Fakultatean, laugarren urtez jarraian. Joan diren hiru urteetan egunak izan duen harrera ona ikusita, paperik gabeko beste egun bat antolatzea erabaki genuen, eta Fakultatearen egun propio gisa finkatzea. Aurreko edizioetan bezala, jardunaldi horren helburua izan da jendea paperaren erabileraz hausnartzera bultzatzea, paper gutxiago kontsumitzea lortze aldera.

Aurreko urteetan bezalaxe, oraingoan ere kontatu dira Atezaintzako, Dekanotzako eta Idazkaritzako fotokopiagailu nagusiek zenbat fotokopia egin dituzten ekitaldiaren aurreko ostiraletan, paperik gabeko eguneko kopuruarekin alderatzeko.

Hau izan da 2016ko Paperik Gabeko Egunaren emaitza:

Eguna	14/10	21/10	28/10	04/11	11/11	18/11	25/11	02/12	09/12	BATEZ BESTEKOA (aurreko 9 ostiralak)	PAPERIK GABEKO EGUNA
Fotokopiak	992	829	1166	4108	657	1291	1109	333	784	1252	792

Paperik Gabeko Egunean % 36,75 fotokopia gutxiago egin ziren, aurreko 9 ostiraletan egindakoen batez bestekoarekin konparatuta. Paperik Gabeko Egun sinbolikoak emaitza onak ematen ditu urtez urte; hala eta guztiz ere, urteko egun guztietan ahalegindu behar dugu kontsumoa gutxitzen.

Iaz, Gueñesko Paperezko Jantzien Nazioarteko Lehiaketan azken edizioan aurkeztutako jantzietako batzuk izan genituen Fakultateko sarreran. Aurten, bestelako erakusketa bat izan dugu: TRATE tailerrari esker, kartoiz egindako altzariak jarri genituen Fakultateko sarreran.



Kartoiz egindako altzariak



Kartoiz egindako altzariak



Paperik Gabeko Eguna

Ba al zenekien?

REPACAR Paper eta Kartoiaren Birziklatzaile eta Lehengoratzailen Espainiako Elkarteen azterlan batek dioenez, Gabonetan biztanle bakoitzak batez beste bi kilo paper eta kartoi botatzen ditu birziklatzeko edukiontzietara.

REPACAR papera eta kartoia lehengoratzeko eta birziklatzeko Espainiako sektorea ordezkatzeko duen elkarte bakarra da, eta Fakultatean papera biltzeaz arduratzen den Beotibar Recycling enpresa elkarteko kide da. Bada, REPACARen arabera, Gabonetako kanpainan 38.400 tona paper eta kartoi birziklatuko ziren estatu osoan, eta, horrela, 35.500 tona CO₂ gutxiago igorriko ziren atmosferara.

Herritar bakoitzak, batez beste, 13 kilo paper eta kartoi birziklatzen ditu urtean, 2015eko azken datuen arabera. Hortaz, Gabonetako kanpainak birziklaturiko kopuru osoaren % 15etik gora hartzen du.

Herritarrek papera eta kartoia dagokion edukiontzira bota ondoren, enpresa lehengoratzailerek baliabide erabilgarri bihurtzen dituzte. Paper fabrikak kontsumitzen dituzte baliabideok, eta, hala, onura bikoitza sortzen da: onura ekonomikoa eta ingurumenekoa.

Eta zuk, zer egin duzu Gabonetan sortutako paperarekin eta kartoiekin?

Edonola ere, lehenik eta behin paperaren erabilera murriztearen alde egiten dugu, eta, bigarrenik, birziklatzearen alde.

Datuen iturria:

- CEOE: <http://www.ceoe.es/es/contenido/actualidad/noticias/repacar-calcula-que-cada-espanol-reciclara-2-kilos-de-papel-y-carton-en-navidad>



Gabonetako kanpaina

Hemen azaldutako ideien bat aurrera atera nahi baduzu baina ez badakizu nola, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin, helbide honetara idatzita:

gkz.ekoscan@ehu.eus